

Meho Kodro

• ALAVESEKO JOKALARIA •

«Niretzat beti izango da berezia Realaren aurka jokatzea»

PARTIDU berezia izango da Meho Kodrorentzat igandeko derbia, Realean bizi izan baitzitu bere momenturik onenak egun Alaveseko aurrelari denak. Oraindik ere Realari golik sartu ez dion arren, igandean lehena egitea espero du Kodrok.

■ **Reala dator igandean Mendizorrotzara. Berezia izango da zuretzat, ezta?**

Bai, niretzat beti izango da berezia Realaren aurka jokatzea, bertan bizi izan nituen gauza guztiak direla eta. Orain artean ere jokatu ditut beste partiduko batzuk Realaren aurka, eta niretzat antzerakoa izango dela uste dut.

■ **Nola ikusten duzu Realaren egoera?**

Pena handia ematen dit, batez ere han ditudan lagunengatik eta Real maite duen jende guztiarengatik. Nik esperientzia hori bizi izan nuen iaz Tenerifen, eta orduan agian Realak aurten baino jokalaria hobeak genituen. Aldiz, gauzak gaizki hasten direnean, egoera asko okertzen da, eta entrenatzaile aldaketak, jokalaria aldaketak, arazoak... helitzen dira. Dinamika txar horretan sartzen zarenean, egoera oraindik gehiago okertzen da. Hori bai, Real aurrera irtengo dela espero dut. Izan ere, badirudi hobetzen ari dela, azken hiru partiduetan zazpi puntu lortu baititu.

■ **Iazko derbian gertatutakoaren inguruan asko hitz egiten ari da. Zer deritzozu horri guztiari?**

Iaz ez nengoen hemen eta ez dakit zer gertatu zen. Hori bai, nik ezin dut futbolearen horretan pentsatu. Ez dut uste iaz Realak nahi zuelako galdu zuenik. Profesionalki zein morallki oso tristea da

■■■ Meho Kodro eta Zuhaitz Gurrutxaga Alavesen eta Realaren arteko derbiri jokatu gabeak dira. ■■■ Kodrok onartu du pena ematen diola Realaren egoerak, baina igandean gola sartu nahi du. ■■■ Gurrutxagak Alaves egiten ari den denboraldia goraipatu du, baina Real aurrera bolada onean dela esan du.



horrela pentsatzea, eta gainera ez dut uste inork horrela pentsatzen duenik.

■ **Bukatzeko, argi dago Alaves egoera ezin hobean dagoela derbiari aurre egiteko, ezta?**

Bai, gu oso ondo gaude momentu honetan. Mundu guztia gozatzen ari da, bai partiduetan, bai entrenamenduetan... eta hori onuragarria da taldearentzat. Egia esan, baikortasunez ikusten dut taldearen etorkizuna, eta aurten zerbait garrantzitsua lortuko dugula uste dut. Ez dakit zein txapelketa jokatzeko izango den, baina taldea hurrengo urtean Europan izango dela uste dut.

Asier Errasti
GASTEIZ

Zuhaitz Gurrutxaga

• REALEKO JOKALARIA

«Giro ona izango da, eta gogo handia dut derbi bat jokatzeko»

apur bat lasaitu eta konfiantza berreskuratzeko genuke.

■ **Derbi honetan motibazio berezia izango duzu?**

Bai, bai. Zelaia beteta egongo da, eta seguru giro oso ona izango dela. Derbi bat jokatzeko gogo handia dut.

■ **Beste behin jokalariren bat gertu-gertutik zaintzea izango al da zure lana?**

Beharbada ez, ez dakit. Azken entrenamenduetan behinik behin beste-lako lana ari naiz egiten. Hala ere, gertutik norbait zaindu beharra badut, aurkariak baloirik ez ukitzen ahaleginduko naiz.

■ **Iazko partiduen ondorengatik, aurten Alavesek Realari irabazten utzi beharko liokeela diote zenbaitek...**

Ez dakit zehazki iaz zer gertatu zen, ez bainuen jokatu. Aurten Alaves bigarrena da, eta, Europa sailekatzeko, irabazi nahiko dute. Ezin dugu pentsatu Alavesek mesederik egingo digunik. Gure kabuz, irabaztera joan behar dugu.

■ **Zer iruditzen zaizu Alaves egiten ari den denboraldia?**

Bigarrena da, eta zeozergatik izango da. Bartzelona eta Real Madril bezalako taldeen aurretik dago, eta jada ez gaude Ligako hirugarren jardunaldian. Lan asko egin beharko dugu igandean partidua aurrera ateratzeko.

■ **Zergatik uste duzu ari dela Alaves horren ondo?**

Lanean gogor ari dira, eta talde bezala, gainera. Gakoa da talde bezala ari direla.

■ **Ausartuko al zinateke emaitza bat esaten?**

0 eta 1. Nola edo hala, baina irabaztea da gure asmoa.



JOSEBA OLALDE - PABLO S. QUIZA

Meho Kodro

«Baikortasunez ikusten dut gure etorkizuna: Alaves datorren urtean Europako txapelketa batean ariko dela uste dut»

Zuhaitz Gurrutxaga

«Bolada on bat hasi dugula dirudi, eta garrantzitsua litzateke Gasteizen ere irabaztea»

ZUHAITZ GURRUTXAGAK igandean estreinako derbia jokatzeko du Lehen Mailan. 19 urteko atzelariak sei partiduko jokatu ditu Clementeren aginduetara, oso txukun.

■ **Zure lehen derbia izango da. Jokatzeko irrikitan?**

Lehen Mailan lehen derbia izango dut, bai. Aurrez, jubenil mailan ere jokatu nago; ez da gauza bera, baina han ere igartzen zen derbia zela.

■ **Azken bederatzi puntuetatik zazpi eskuratu dituzue. Zuen asmoa bolada on horrekin jarraitzea izango da.**

Bai, bolada on bat hasi dugula dirudi, eta Gasteizen ere irabaztea oso garrantzitsua litzateke, gero etxean beste partiduko bat dugulako. Bi partidukoak irabaziz gero,

Jon Balenziaga
DONOSTIA